

Seigarren olatuak euroaren eremuko hazkundera galgatu du

Euroaren eremuko jardura osoaren azaroko hedapen are biziagoa (55,4), zoritxarrez, laburra izan zen. Covid-19 birusaren kutsatzeak euroaren eremuan areagotu diren honetan, hazkunde ekonomikoa moteldu egin zen abenduan, martxotik izan duen mailarik ahulenera iritsi arte. Zehazkiago adierazita, euroaren eremuko PMI indize konposatua aurreko hileko 55,4tik urteko azken hilabeteko 53,3ra igaro zen.


Herrialde batzuetan murrizketak berriz sartzeak

eragin zuen ziurgabetasunak bereziki oztopatu zuen zerbitzuen sektorea. Izan ere, abenduan bere hedapena moteldu egin zuen, 8 hilabeteko gutxienekora, PMIa 53,1 puntukoa izan baitzen, azaroan 55,9 puntukoa izan zen bitartean. Manufakturen sektorean, berriz, PMIa 58 puntura murriztu zen, bederatzi hilabetetan izan zuen irakurketa okerrera baita. Hala ere, enpresek langileen kontratazioa handitzen jarraitu zuten, baina erritmo motelagoan.


PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA

2021eko ABENDUA


53,3




MANUFATUREN PMI. EUROGUNEA



ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA




PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




Alemanian, non Covid-19ari aurre egiteko neurriak zorrotzagoak izan baitziren, jarduera ekonomikoaren mailak gelditu egin ziren eta bere PMI konposatua hedapen atalasearen azpitik erori zen (49,9). Inguruko gainerako herrialdeek ere beren indizeak murriztuta ikusi zituzten, nahiz eta hedapen eremuan jarraitu zuten. Hala, Frantziako PMI konposatua 55,8ra jaitsi zen, Espainiakoa 55,4ra eta, azkenik, Italiakoa 54,7ra. Eurogunetik kanpo ere joera bera hauteman zen, hau da, abenduan zehar hedapenak bere horretan jarraitu zuen, baina erritmo apalagoan.


PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



PMI KONPOSATUA. AEB



PMI KONPOSATUA. JAPONIA



Iturria: Markit